

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILLOPE

**259**

2018ko ekaina

TOKIKOM

# ESKUEKIN ERAIKIZ



## SAKABANAKETA ETA DISPERSIOA

Lagun Xanti Begiristain, aurreko alean azaltzen zenuen gaiarekin jarraitu nahiko nuke, sakabanaketak eta dispersioak egunerokoan barrenak mintzen baitzikidate.

Bai, preso politikoak sakabanaturik dituzte hainbat kartzelatan, eta kartzela bakoitzean hainbat modulutan, elkar ikusten ez dutelarik. Eskutiz kopuru mugatuak, telefono dei zehatzak eta mugatuak, ziegan material apur bat, hamar laguneko zerrenda bisitak jasotzeko... Dispersioa ere hitz egokia delakoan nago, zeren berain izaera, ametsak, izatea, duten argia eta indarra espazioan dispersatu nahi dute. Mina eta gorrotoa sortzen duten espetxe legea ezartzen zaie egunerokoan. Mila pusketatan txikitu nahi dituzte, nahi gaituzte.

Badator udara eta barrukoekin bat, borrokan jarraituzera animatzen zaituztet. Aurten ere aukera izango dugu herriko jaietan, hondartzetan, errepide bazterretan... egiten diren kontzentrazioetan parte hartuz, beraien eskubideak errespetatu eta egoera politikoak eskatzen duen moduan, kartzelako onurak aplikatzen has daitezten. Eta gorrotoa eta mina besterik sortzen ez duten mendeku gosez egindako legeak alde batera uzteko behartuko dugu.

Animo, elkartasuna eta borroka eginez, Herri hone-tan preso politikorik gabeko herria ezagutzeko eguna iritsiko da.

Sakabanaketari eta dispersioari STOP!!!

Araitz-Beteluko presoen eskubideen aldeko taldea.

## ERNE ETA ADI! (ETA II)

Gaur hautatu ditudan hitzak bakartu eta isolatu dira. Ikus dezagun, bada, Euskaltzaindiak nola definitzen dituen bere azken hiztegia:

- bakartu 1 *da* ad. Lagunartetik urrundu. *Basamortura bakartzen direnak. Moises berehala bakartu zen Jaunari erregutzera.*

2 *du* ad. Norbait edo zerbait bakarrik jarri, berarekin daudenetatik bereizi. *Kaiola berean zeuden txoriak bakartu egin ditugu. Kutsaturik daudenak gela berezi batean bakartu dituzte.*

- isolatu *du* ad. Fis. Zerbait beroaren, hots uhinen edo elektrizitatearen eraginetik at atxiki. *Gela bat berotik isolatu.*

[Oharra: beste arloetan hobestekoak dira bakartu eta bakandu].

Bueno, bada, irakurle, esadazu ez ote dituzun mota honetako esaldiak behin baino gehiago entzuten eta irakurtzen, Euskal Herriko hainbat hedabidetan eta jende ospetsuaren zenbait ahotan, esate baterako, "presoak isolatuta dauzkate"; "isolamendu gelan sartu dute" eta abar.

Horra hor, bada, norberak atera ditzala bere kontuak. Aurki arte.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefona eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
www.tanatoriosirache.es



- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Aitor Irastortza.
- 06 ELKARRIZKETA: Irati Ezeiza eta Yakov Olevsky.
- 11 KUXKUXEAN: Ekaineko zorion agurrak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 16 ERREPORTAJEA: Brigida Zubillaga.
- 20 KULTURA
- 24 KIROLA
- 26 OREKA OSASUNTSUA
- 27 NOR DA NOR?
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Beteluko udal hirigintza plana.
- 30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Kristina Askarai, Nere Iriarte, Unai Ijurko, Larraungo AEK euskaltegia, Esther Mikeo, Ander Arraztio, Igor De Castro, Ondare Kultur Elkarteak, Joxe Mari Zabaleta, Dolores

Zubillaga, Anaïs Bas, Yakov Olevsky eta Irati Ezeiza.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA



## Xakean

Aurten, Ibarberri eskolan lehenengo aldiz, 5. mailako ikasleak xakean nola jokatzeko ikasten ari gara. Ikasturte hasieran, irakasleek astero saio bat eskainiko zigutela esan zigutenean, asko poztu ginen guztiak. Batzuek, aldeztatik ezagutzen zutelako eta besteak, ikasteko interesa zutelako.

Denok badakigu xakea ez dela joko erraza. Horregatik, pixkanaka-pixkanaka oinarrizko pausuak ikasten hasi ginen: pieza bakoitza nola mugitzen den, zenbateko balioa duten, partidak nola hasi eta bukatzen diren...

Gainera, ongi pasatzeaz gainera, xakeak beste hainbat onura dauzka.

Izan ere, adimen-kontzientea areagotzen du, sormena eta oroimena garatu, ulermena hobetu... besteak beste.

Dagoeneko, nahiz eta hasi berriak garen, gure artean partidak jokatzeko gai gara eta datorren ikasturteari begira txapelketa bat antolatu nahi genuke eskolan. Oraindik ez dugu gauza handirik zehaztu, baina ideien inguruan erabaki txiki batzuk hartzen hasi gara. Dena den, garaia iristen denean, informazioa zabalduko dugu eskolan nahi duenak parte har dezan. Anima zaitetzeko xakea ikastera, uste baino joko politagoa da eta!!

eskolatik  
mailopera



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com

**ANTONIO CARRARO**

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com



## BERDINTASUN PROPOSAMENA BERTAN BEHERA

Berdintasunerako plana berrikusi eta bigarren egitasmoa egitea proposatu zuen apirilean EH Bildu taldeak. Baliabide ekonomikorik ez dagoela argudiatuz. Lekunberriko taldeak proposamena ez duela onartu salatu dute EH Bilduko kideek.



## SATORZULOKO V. URTEURRENA

Ekainaren 16an ospatuko dute Satorzuloko gazteek, lokaleko V. urteurrena. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Eguerdian Sebastian Lizaso eta Aitor Sarriegirekin bertso-bazkaria izanen da eta ondotik mus txapelketa eta Dj Satorzulorekin luzatuko da parranda.



## BETELUKO HERRIGUNEAREN ITXURA ALDATZERA DOA

Beteluko Martxantegia etxea botatzen hasiak dira. Urte luzez estankoa egon zen bertan, baina azken urte hauetan eraikina hutsik egon da. Eraikin bat botatzeak beti ematen du pena, baina kasu honetan, herrigunetik Baranda etxea askoz hobeto ikusiko da eta hainbat metro irabaziko ditu Udalak beilatoki aldera doan espaloia egokitzeko.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Aitor Irastortza (Azpirotz)

### **Zein da Larraun aldeko gazteen ardura?**

*Gure gainetik bizkor  
kentzea logura  
ekintzekin bultzatuz  
guztion onura  
norbera egoteko  
benetan gustura.*

*Globalizazioa  
dator **guregana**  
pertsonek diru truke  
makurtuz **izana**  
zapalkuntza bihurtu  
dadin **iragana**  
elkarri laguntzea  
da guztion **lana**.*

Doinua: Gaeko entziklopedia.



### **losebarentzako puntua:**

Justizia lortzeko  
al dago kartzela?

### **Oinak:**

Epaiketa, beteta,  
beta, eta.

## Bada baserri bat...

*Irati Ezeizak eta Yakov Olevskyk hiru urte daramatzate Azkarateko Goikoetxea baserrian bizitzen. Erortzear zegoen baserria erosi eta eurek, senide eta lagunak laguntzarekin batera ari dira berritzen.*

### Irati, zu tolosarra zara...

**Irati:** Bai eta 18 urte arte bertan bizi izan nintzen, baina gero Bartzelonan ikasi nuen, urtebete Txilen ere eman nuen eta gero Pirinio inguruan bizi izan naiz.

**Yakov:** Ni israeldarra naiz. Sobietar Batasunean jaio nintzen, baina Israelen hazi nintzen eta gerotik beste hainbat lekutan bizi izan naiz. Guk biok Txilen ezagutu genuen elkar.

### Eta Azkaratera bizitzera etortzea erabaki zenuten...

**Irati:** Denbora generaman, batez ere nik, zaharberritzeko etxe baten bila. Hau baina txikiagoa zen zerbait bilatzen genuen eta hasieran Huesca inguruan hasi ginen bilatzen, etxebizitzaren prezioak hemen baino askoz ere merkeagoa direlako batetik eta klima ere lehorragoa delako bestetik. Landa eremuan egon zedila nahi genuen eta guk

geuk berritze zen hasieratik genuen asmoa.

**Yakov:** Hona kasualitatez iritsi ginen. Batez ere Pirinioetan ibili ginen etxe bila, hemendik nahiko urrun.

**Irati:** Leku ezberdinetan begira ibili ginen. Baserri hau 2015eko abuztu bukaeran aurkitu genuen, urrian bertan erosi egin genuen eta azaroan bizitzera etorri ginen. Oso azkar izan zen dena.

### Eta nola aurkitu zenuten Goikoetxea baserria?

**Irati:** Orain egitura zuzenduta dago eta teilatu berria duenez, oso ongi dago. Baina iritsi ginenean, baserri honek hamar urte zeramatzen hutsik eta itoginez bete zuen teilatua. Altzariak desegin egiten ziren, egur asko ustelduta zegoen...

**Yakov:** Abentura bati heltzea bezala izan zen, dena gure kabuz egin nahi genuelako eta hala izaten ari da, laguntza asko izan dugun arren. Irati arkitektoa izatea abantaila handia da, prozesuaren kudeaketa nagusia berak darama.

### Irati, zerk bultzatu zintuen erortzear zegoen etxe bat zuk zeuk berritzera?

**Irati:** Ikasketak amaitu nituenean, bulego batean planoak marrazten lan egin ordez, Katalunian masia bat konpontzeko proiektuari heldu nion beste pertsona batekin batera, obran bertatik bertara ikasi eta esperimintatzeko asmoz. Konpondu bitartean bertan bizitzen egon ginen. Ez zen hau bezain etxe handia, baina horri esker, ikasketekin ikasitakoaz gainera, bizitako esperientzia ere banuen hona etortzerako. Horrek eta beste hainbat bioeraikuntza eta autoeraikuntza proiektutan parte hartu izanak eman zidan oinarria.



Hiru urte daramatzate Iratik eta Yakovek Azkarateko Goikoetxea baserrian bizitzen. Arg: Labrit.

**Zuen kabuz egin duzue orain arteko guztia, baina pertsona askoren laguntza ere izan duzue...**

**Yakov:** Bai, herriko bizilagun batzuen laguntza izan dugu, lagunena, senideena... profesional batzuek ere lagundu digute esgitura lanetan.

**Irati:** lazko udazkenean egin genuen obra garrantzitsuena. Teilatua berritu aurretik, itoginek urez betetako kuboak aldatzen ibili behar genuen. Urtarrilean bukatu genuen teilatua eta geroztik geldi egon gara. Orain ekingo diogu berriro berritze lanari. Uda iritsi aurretik etxe ingurua prestatu genuen, kanpin-dendekin eta lo egiteko koltxoekin, azpiegitura prestatu genuen gu laguntzeko jendea etor zedin. Lagunak, ezagunak, senideak, eta Workaway edo Helpx bezalako truke sareen bitartez etortako boluntarioak ere izan ditugu.

**Yakov:** Udaberrian baratza prestatzen hasi ginen, udaran nahikoa janari izateko eta egia esan giro berezia sortu zen hemen.

**Udan zenbat lagun elkartu zineten hemen?**

**Irati:** Hainbat egunetan hamar edo hamabi pertsona inguru. Asteburu batean hogeirek ere elkartu ginen.

**Truke sareak aipatu dituzue...**

**Irati:** Bai, guk ostatua eta otorduak eskaintzen genizkien eta trukean, beraiek zaharberritze lanekin lagundu ziguten. Aurrez, egin beharko dituzten lanak eta baldintzak azaltzen dizkiezu etortzerakoan sorpresa txarrik har ez dezaten.

**Yakov:** Horrela bidaiatzen duen jende asko dago, bidaiatzeko modu merke bat da, jendea eta leku berriak ezagutzeko beste modu bat. Guretzako trukea lanaren ordainaria baina gehiago da. Pertsonen arteko harremanak sendotzen ditu.



Goikoetxea baserria teilatua berritu aurretik.  
Arg: Irati Ezeiza.

**Irati:** Normalean ekologiarekin, bizitza osasungarriarekin edo bio-erakuntzarekin lotutako proiektuetan parte hartzeko proposamenak izaten dira. Nik ere parte hartu izan dut halako trukaketetan eta oso aberasgarria iruditzen zait, sortzen diren harreman pertsonalengatik eta baita lanagatik beragatik ere. Gaur egun ez gaude eskuz lan egitera horren ohituta eta hori ere oso esker onekoa da. Hasi ginenetik, hemendik ehun pertsona baino gehiago pasa dira.

**Eta zeintzuk izan ziren iazko udazkenean egindako lanak?**

**Irati:** Udan ingurua prestatu genuen. Gero teilatu zaharra kendu genuen, egitura zuzendu genuen eta teilatu berria emateaz gainera txoritoki bat ireki genion teilatuan.

**Jatorrizko egitura mantentzea al da zuen asmoa?**

**Yakov:** Bai, gure asmoa izan da hasieratik jatorrizkoa ahalik eta gehien kontserbatzea eta horrek lan handia ekarri digu, konplexuagoa izan da. Egur zaharra kendu eta dena egur berriarekin egin izan bagenu, askoz



*“Baserri honek hamar urte zeramatzan hutsik eta itoginez betea zuen teilatua”*

*“Abentura bati heltzea bezala izan zen, dena gure kabuz egin nahi genuelako eta hala izaten ari da, laguntza asko izan dugun arren.”*

ere errazagoa izango litzateke.

**Irati:** Arrazoi ekonomikoetatik hara-tago, badira beste balore batzuk ere. Erosi eta gero jakin dugunez, herriko baserri zaharrenetako bat da hau, bere garaian dolare izandakoa, beraz ondare gisa badu bere balioa. Prentsa osorik kontserbatu da urte guzti hauetan, eta hori guztia mantentzea polita da.

#### **Eta aurtengo udan zein beste pauso ematea aurreikusten duzue?**

**Yakov:** Lan zehatzagoak izango dira. Pertsona gutxiago ibiliko gara lanean, nire aita, anaia eta lagun bat etortzekoak dira.

**Irati:** Nik mendiko aterpetxe batean lan egiteko asmoa dut, beraz, hama-bostean behin egongo naiz hemen.

#### **Eraikitze lana abentura handi bat izaten ari da, baina bertan bizitzea ere ez da erronka txikiagoa...**

**Irati:** Lehenengo urtean baserriaren barruan jarri ginen bizitzen. Hasieran, logela bat garbitu eta prestatu genuen, baina euria batetik eta arkakusoak bestetik, azkenean kanpin-denda jarri genuen hemen barruan. Gero, udaberrian, karabana bat lortzea erabaki genuen. Bigarren eskuko karabana bat ekarri genuen eta geroztik han bizi gara.

#### **Eta herritarren aldetik zer iristen zitzaizuen?**

**Irati:** Egia esan, neguan etorri ginen eta ez da garai honena jendearekin harremantzeko.

**Yakov:** Batzuk hasi ziren pixkaka hurbiltzen eta hasi gara elkar

ezagutzen. Udaberrian artzainak ere gora eta behera ibiltzen dira ardiekin eta harremana egiten hasten zara. Udan, horrenbeste jende ibili denez, mugimendu handia zegoen hemen eta sumatzen genituen herritarrak paseatu bidenabar zer egiten genbiltzan ikustera hurbiltzen zirela.

**Irati:** Gainera, neska askok parte hartu dute zaharberitze eta eraikitze lanetan eta pertsona bat baino gehiago harritu egin da emakumezkoak teilatuan lanean ikusterakoan edo harritzko pareta eraikitzen ikusterakoan.

#### **Eskulana bai, eta erremintak?**

**Yakov:** Baten bat erosi dugu, baina erreminta asko utzi egin dizkigute, oraindik bueltatu beharreko tresna asko dauzkagu.

**Irati:** Egur zaharra berrerabili dugunez, egurra garbitu egin behar izan dugu eta eskuz egin beharreko lana izan da. Zeioekin ibili gara egurra garbitzen. Gero, ezagun batek enborrak zuritzeko tresna bat utzi zigun eta horrekin askoz ere azkarrago egin dugu lana.

**Yakov:** Baina egurraren erdia baino gehiago eskuz garbitu dugu.

#### **Dena zuen kabuz egiten ari zaretan arren, oinarri ekonomiko bat beharko zenuten...**

**Irati:** Bai, eta baserria erosteko laguntza izan dugu, mailegua bankuan eskatu beharrean, senitartekoen artean eskatu dugu.

**Yakov:** Eta Nafarroako Gobernuak etxeak zaharberitzeko eskaintzen dituen diru-laguntza ere onartu digu, nahiz eta oraindik ez dugun

Teilatuan atera dioten txoritokiak hamaika buruhauste ekarri dizkien arren, dagoeneko ixtea baino ez zaie falta. Arg: Anaïs Bas.





jaso, baina hori ere laguntza handia izango da.

**Irati:** Profesional batek egindako lanarekin alderatuta, kostua askoz ere baxuagoa da. Besteen esku uzteak izango lukeen kostuaren laurden baten inguru izango du, baina eskuz lan egin beharreko ordu asko dira. Baita kudeaketa ordu asko ere.

**Yakov:** Nik beldur handia nuen hasieran. Zaharberitze lanetik hasi baino lehen jada hemen bizi ginenez, zalantza asko sortzen zitzaizkidan. Irati baikorra goa izan da hasieratik.

### Hirigintza araudia dela eta oztopo asko izan dituzue?

**Irati:** Nik egin nuen proiektua eta zailtasun handienak teiltuan irekitako txoritokiarekin izan genituen. Baserri honek teiltu handia du baina ez da oso altua, horregatik ez du etxaurre izugarri handia. Niretzat arkitekturaren izugarri garrantzitsuak dira energia-eraginkortasuna eta materialaren jasagarritasuna. Etxebizitzak, berez, ahalik eta gutxien kontsumi dezala, egurrean edo elektrizitatean horrenbesteko gastua ez izateko.

Garrantzitsua da diseinua ongi egitea, bitzita kalitate ona emateko kontsumoa murriztearekin batera.

### Eta hori baserri zahar hauetan ez da erraza...

**Irati:** Proiektuaren estrategia teiltuan oinarritu genuen. Teiltua berri beharra genuenez teiltuak etxebizitzaren zati bat eman diezagula. Leiho handiak ireki genitzakeen, baina askoz ere konplexuagoa izango litzateke pareta lodi hauetan leiho handiak irekitzea. Gainera, baserri hau ekialdera eta mendebaldera dago orientaturik, beraz, eguzkia hartzeko ez da egokiena. Neguan, eguzkia baxua denean, hegoaldean leihoak behar ditugu. Horregatik, hegoaldeko etxaurrean bolumen hori irekitzea erabaki genuen. Barruan aurreikusten den etxebizitza "T" forman eraikitzea aurreikusten da, beraz, etxaurrea hiru puntuk soilik ukitzen dute, hegoaldekoak eguzkiaren argia eta berotasuna hartzen ditu, eta beste biak oso txikiak dira isolatuta gelditu daitezten. Gainerako



Ezkerrean: Egur zaharren garbiketa, tresna ezberdinak probatzen. Arg: Irati Ezeiza. Behean: Txoritokiaren teiltua eraikitzen. Arg: Yakov Olevsky.

guztia ez dago kanpoaldeko hotzarekin kontaktuan. Kalkuluen arabera, kontsumorik gabeko etxebizitza behar luke eta bioeraikuntza irizpideak jarraituz egingo da.

Hirigintza araudiak gehienez 2,20 metroko zabalerako mantsardak egitea ahalbidetzen du. Ez da erraza izan, baina kalkulu eta justifikazio lan handien ondoren, lortu dugu txoritokia irekitzea, eguzki argiaz gainera, bista ederra ematen diguna.

### Hiru urte hauetan eksklusiboki baserria berritzeari eskaintzen diozue zeuen denbora?

**Yakov:** Ez, uda honetan eskaini dion gure denboraren %100, uztailetik urtarrilera bitarte.

**Irati:** Eta lehenengo urtean ere denbora asko eskaini genion, proiektua prestatzeari, baratza egiten hasteari eta etxea hustu eta garbitzeari.

**Yakov:** Ni ordura arte Bilbon bizi nintzen eta handik etorri, elkarrekin bizitzen jarri eta proiektua martxan jartzea ez zen erraza izan, kontuan hartuta kanpin denda batean egiten genuela lo eta nahiko modu prekarioan bizitzen ari ginela.

### Zergatik aukeratu zenuten baserri hau?

**Irati:** Baserria gustatu zitzaigun, baina baserriak berak baino gehiago inguruak konbentzitu gintuen. Bioi asko gustatzen zaigu mendia eta natura. Bailara aurretik ezagutzen genuen eta mendi ederrak ditu, Balerdiko paretak izugarri politak dira. Baserriko lurretatik erreka txiki bat



*"Kalkuluen arabera, kontsumorik gabeko etxebizitza behar luke"*

ere pasatzen da eta hori ere gustatu zitzaigun. Etxeko paretak baldintza onean zeudela ikusi genuen, eta egitura ere nahiko ongi zegoela zirudien nahiz eta barrutik ikusterakoan espero baino okerrago zegoela ohartu ginen.

**Zer izan da gogorrena orain arteko bidean?**

**Irati:** Gauza asko egon dira. Alde batetik, gure arteko komunikazioa zaila izan da, batzuetan ikuspuntu ezberdinak genituelako eta beldurrak, bakardadeak, eta prekarietateak are eta zailagoa egiten dutelako egoera. Eta bestetik, lanak hasiera batean uste genuena baino gehiago luzatu dira. Txoritokia atera izanak lanordu askoz gehiago ekarri dizkigu eta baita buruhauste gehiago ere. Egur zaharren gainean lan egitea ere ez da erraza izan, takoak jarri, berdindu, zeioekin garbitu... Gogorra izan da. Yakov medikuntza ikasten dabil eta teilatua bukatu beharra zegoenez eta lanak urtarilerara arte luzatu zirenez, lehenengo lauhilekoan ikasketak alde batera utzi behar izan zituen.

**Yakov:** Bai, gainera oso negu gogorra izan da. Elurra kentzen ibili behar izan dugu teilatuan lanean jarraitu ahal izateko. Baina bestetik oso esperientzia polita izaten ari da.

**Oraindik karabanen bizitzen jarraitzen duzue...**

**Irati:** Bai, baina baserriko sukaldea etorri ginenetik erabili izan dugu. 2000. urtean berritu zuten, su ekonomikoa, eta su elektrikoa dauzkagu, hozkailu

bat oparitu ziguten, sofa bat ere eman digute... Sukaldea eta komuna erabilgarri izan dugu beti. Garbigailuak eta berogailuak hasieran ez zuen behar bezala funtzionatzen, baina gero lortu genuen martxan jartzea. Bizilagunek asko lagundu gaituzte. Joan den urtean haizearekin kotxea maldan behera erori zitzaigun eta Pellok lagundu zigun ateratzen. [Kar, kar, kar].

**Yakov:** Menditik egurra ekartzen lagundu digute, karabana mugitzen... Laguntzeko prest dauden horiek ez bagenu, are zailagoa izango litzateke hau guztia.

**Eta noizko aurreikusten duzue bukatuko duzuela etxebizitza eraikitzeaz?**

**Irati:** Udan solairuaren zati bat egingo dugu, sabai-leihoetan kristalak jarriko ditugu, txoritokia itxiko dugu... Aurtengo neguan teilatua berria izan dugun arren, eta itoginek betetzen zituzten kuboak husten ibili beharrik izan ez dugun arren, oraindik dena irekita zegoenez, ez dugu alde handirik nabaritu erosotasun aldetik, datorren urteari begira hori asko aldatuko da. Baserri hau oso handia da eta hemen gure etxebizitza gainera, jende gehiago bizitzea gustatuko litzauguke, jende gehiagorekin konpartitzeko proiektu komun batean bihurtzea.

**Yakov:** Bada baserri bat jarri diogu izena proiektuari. Ekintza anitzekin dinamizatzea gustatuko litzauguke, behin oinarriko eraikuntza lanak amaitzean.



Lan gehiena eskuz egiten ari dira eta egitura zuzentzeko laguntza profesionala izan duten arren, beste guztia euren kabuz ari dira egiten. Arg: Irati Ezeiza.

**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**SK**  
**SUAKONTROL LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA**  
LI INCA ESTETIKAL HORTZ ESTETIKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



**Unai Goñi**  
Maiatzak 9, 13 urte.  
*Urte askoz Unai!  
Zure eguna ongi pasako zenuelakoan...  
Muxu bat etxean partez!*



**Nerea Urbizu eta Idoia Balda**  
Ekainak 2 eta ekainak 25.  
*Zorionak kuadrillako bi neska  
polit hauentzat!!!  
Muxu handi bana!!*



**Zuriñe eta Goreti Estanga  
Jareño**  
Ekainak 16, 4 urte.  
Ekainak 30, 7 urte.  
*Zorionak bikote!!  
Segi orain arte bezain  
irribarretsu eta ongi pasa  
zuen egunetan.  
Muxu haundi bana! Aita eta  
ama.*



**Maddi Huarte** (Ekainak 9)  
**Olaia Huarte** (Ekainak 11)  
**Lorea Huarte** (Ekainak 9)  
**Mari Jose Huarte** (Ekainak 24)  
**Irati Garmendia** (Uztailak 2)

*Urte askotarako denei, Gastesikoen partez*



**Kaiet Eskamendi**  
Ekainaren 16an, 4 urte.  
*Zorionak Kaiet! Oso ongi pasa zure egunean.  
Muxu handi bat Izarne, Egoi, aitatxo eta  
amatxon partez.*



**Luana Bécarea**  
Ekainaren 23an, 8 urte.  
*Gure etxeko itsaslamina  
ederrenarentzat... Egun berezi  
honetan ederki pasa dezazula!!  
Muxu handi bat, ama, aita eta  
Nikolasen partez.*

**Jone Zabaleta Olasagarre**  
*Zorionak Lekunberriko Jone Zabaleta Ola-  
sagarre, ekainaren 8an urtebetetze eguna  
duelako. 15 muxu haundi etxeko guztin partez  
maitasun haundienarekin eta ongi ospatu!*



**Eneko Oreja Altuna**  
Ekainaren 23an, 7 urte.  
*Zorionak pottoko!!! Segi beti  
bezain alai!! Ongi pasa zure  
eunean eta altxa gora hankak  
su gañetik saltatzean!! Muxu  
handi bat etxeko guztin  
partez!!!!*



**Manex Torrado**  
Ekainak 25, 11 urte.  
*Zorionak pottoko!! Asko  
gozatu zure egunean!!  
Jaso muxu handi bat.  
Julen, aita eta ama.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

## ETOR ZAITEZ MAILOPEREN ALDEKO KONTZERTURA!

Ekainaren 9an, arratsaldeko 18:00etan, Mailope al-dizkariaren aldeko kontzertua eskainiko da Bete-luko plazan. Aralar Musika Eskolako ikasleekin batera hainbat herritar izango ditugu taula gainean. Animatu eta hurbil zaitez!

## IRUINTRIKUHARRIBIDE IBILBIDEA PRESTATU ETA LEKUNBERRIKO GARBI-TOKIA TXUKUNDUKO DITU ONDARE KULTUR TALDEAK DATOZEN HILABETEETAN

Ondare Kultur Elkarreak aurtengo neguan ere hainbat eta hainbat lan egin ditu eta orain, eguraldi onarekin batera, beste hainbat proiektu aurreikusten ditu datozen hilabeteetarako. Besteak beste, laster 8,4 kilometro izango dituen "Iruintrikuharribide" ibilbidea prestatzen hasiko dira. "Jentilharribide" egin zen moduan egitea da asmoa, auzolanean eta Madotz zein Oderizko kontzejuen laguntzarekin. Oraingoan Larrazpilgo trikuharriarekin batera, Madotz eta Oderizko eremuan dauden Lamear, Pian, Kategaina trikuharriak eta Alitzea zein Kategaina iruinarrak (edo menhirrak) lotuko dituen 8,4 kilometroko ibilbidea prestatuko da.

Maiatzaren 6an Albiasuko garbi-tokia txukuntzeari ekin zioten. Bertako kontzejuek materialerako jarritako diruarekin eta pertsona ezberdinen laguntzarekin, auzolanean, kanpoko zein barruko egurrezko egitura garbitu, egurrarentzako tratamendua eman eta margotze-lanak egin ziren.

Ildo beretik, ekainean Lekunberriko Udalarai baime-na eskatuko diote herriko garbi-tokia, Ondare kultur taldearen gidaritzapean txukuntzeko. Lan hori bizilagunekin batera auzolanean egin beharraren garrantzia azpimarratu nahi du taldeak: *"Horrelako proiektu txikiekin biztanleen arteko harremanak sendotu eta bertan dugun ondarea zaintzeko kontzientzia zabaltu nahi ditugu"*.



## SANTA ENGRAZIA ETA SANTA LUZIA BASELIZETARA ERROMERIAN

Bi erromeria izan dira gurean azken hilabete honetan. Joxe Mari Zabaletak beti bezain zintzo eman digu horren berri. Apirilaren 16an eta 22an, Uitziko Santa Engrazia basilizara erromeria izan zen. Santa Engrazia egunean 35 bat lagun inguru bildu ziren ermitan, astelehen soila izanik ere. Hurrengo igandekoa jendetsuagoa izan zen. Maiatzaren 6an berriz, Arruizko herritarrek gurutzea hartu eta oinez joan ziren Santa Luzia ermitaraino. Lurren be-deinkapena egin eta meza ospatu ondoren, ama birjinari lore eskaintza egin zioten eta hamaiketako baten bueltan elkartu ziren bertartu ziren 40 lagun inguru.

## ARTILEA KUDEATZEKO PROPOSAMENA AURKEZTUKO DU MENDIALDE MANKOMUNITATEAK

Mendialdea Mankomunitateak eskualdeko artzainen artilea kudeatzeko proposamena aurkezteko bilera egingo du datorren ekainaren 5ean eta 6an, goizeko 11:30ean, Leitzako udaletxeko batzar aretoan. Mankomunitateak eskualdeko artzain guztiak gonbidatzen ditu, bilera batean zein besteak parte hartzera.



## EKAINAREN 22AN, BATERIA KONTZERTUA IZANEN DA ALLIN

Martillotxikiko perkusionistek bateria kontzertua eskainiko dute datorren ekainaren 22an, arratsaldeko 17:00etan, Alliko Akelar lokal-ikuiluan. Animatu zaitetz gorputza astintzera!!



## IBARBERRIKO IKASLEAK AEK-KO IRAKASLEEN PAPEREAN

Joan den azaroan, Ibarberri Eskolako DBH2ko ikasleak, Larraungo Aek-ako kideek gonbidaturik, bertako ikasleekin mintza-praktika egiteko aukera izan zuten. Balorazioa oso ona izan zen eta maiatzaren 11ean bigarren saio bat egiteko gelditu ziren. Taldeka Aek-ko ikasleek prestaturiko hainbat galdera erantzun zizkieten. Talde txikitan elkar ezagutu eta euskara praktikan jartzeko aukera izan zuten. Ibarberriko ikasleek eskerrak eman nahi dizkiete Aek-ko ikasle eta irakasleei, "oso gustura egon ginen zuen artean".



## UMEEN EGUN ARRAKASTATSUA BETELUN

Umeek euren eguna izan zuten joan den maiatzaren 5ean Betelun. Goizean altxorraren bila ibili ondoren herri kirol saioan eta eskolan egin zen flashmobearen parte hartu zuten. Eguerdian bazkari herrikoia izan zuten eta arratsaldean disko-festarekin eman zioten amaiera festari.



# Harremanen “fast-food”

Iratzarri, gosaldu, lanera / klasera joan, bazkaldu, etxeko-lanak egin edo lanera bueltatu, zuretzako denbora ateratzen saiatu, afaldu, lo egin. Iratzarri, gosaldu, lanera / klasera joan, bazkaldu, etxeko-lanak egin edo lanera bueltatu, zuretzako denbora ateratzen saiatu, afaldu, lo egin. [...]

Egunak aurrera doaz eta errutinan murgiltzen gara. “Guretzako denbora ateratzen” saiatzen. Eta, askotan, kostata lortzen. Errealitatea azkar mugitzen da. Are gehiago esanen nuke, orain hogei-hogeita hamar urte baino askoz ere bizkorrago aldatzen da.

Teknologia izan da pisu handien izan duen tresna gure eguneroko bizitza aldatzeko prozesuan. Uste dut ez garela jakitun Internetek, esaterako, gure bizitzan suposatu duen (eta suposatzen duen) iraultzan.

Sareak harremanak eraikitzeke modua ere aldatu du. Esaiezue zuen aitona-amonei, edo ez dute zertan horren helduak izan behar, neska/mutil bat ezagutu duzuela mugikorrek aplikazio bati esker. Orain horrela egiten dela, kalera atera beharrik gabe. Bai, ongi. Egia da beste belaunaldi bati buruz ari garela eta ezin ditugula bizitza estilo eta erritmoak konparatu. Baina hausnartu dezagun.

Ez naiz ona edo txarra zer den kritikatzan hasi behar, baina azalekoa den harreman sistema batean



Arg: Unsplash.

sartzen ari garela uste dut. Katalogo bat ematen digute eta fisikoaren arabera, beste edozeri erreparatu gabe, baietz edo ezetz esanen diogu.

Hori normalizatu izanak erakusten digu gure bizitza irudiek osatzen dutela, oso azkar mugitzen diren irudiek. Errealitatea mila kilometro orduko abiaduran doa eta gu erritmo hori jarraitu nahian gabiltza. Baita harremanei dagokienez ere. Hau da, abiadura hori harreman pertsonalak eraikitzeke eraman nahi dugu.

Baina, bestetik, uko egin nahi diegu azalekoak diren harremanei. Fisikotik haratago joan nahi izaten dugu, “fisikoak ez baitu pertsona definitzen”. Edo, hobeki esanda: ez luke zertan definitu. Nahita edo nahi

gabe, azalekoak diren erlazioak sustatzen ari garela pentsatzen dut. Diskurtso potenteak lantzen ari garen arren, badirudi ez dugula deus esan nahi mugikorrerako aplikazio horietaz. Bakoitzak, noski, nahi duena egiten du, eta nahi duenerako erabiliko dituelako.

Sexuaren “fast-food” bihurtu dira hainbat eta hainbat aplikazio. Azkar, etxetik mugitu gabe, hatz mugimendu bizkor bati esker.

Lehen esan bezala, kritika bat baino, hausnarketa bat proposatu nahi izan dizuet. Buruari eragiteko, sistemak zalantzan jartzeko, prozesu horretan murgiltzeko lagungarriak egiten baitira edonolako eta edozeinen “harrikadak”.



*luze*

# Halabeharrez gertatu

Kaixo irakurle ausart hori. Ausart diot hitz hauek zer dakarten begiratzera ausartzen zarelako, zer aterako den oso ongi ez dakidan idatzi horietako bat egitera noalako... Nigan bizirik dagoen gairen bat lantzen saiatzen naiz atal honetan, nire bizipenak zuzan zerbait eman dezaketelakoan... Ba azken aldian asko aztertzen ari naizen gaia, proiektu eta leku komunena da. Ez daukat ondorio argirik, baina bai barne taupada biziak, beraz, ea nora garamatzaten.

Gaintzan jaio nintzenez herriko etxea zegoen. Beste gauza batzuen artean, festak egiteko herrikoen artean prestatzen eta kudeatzen zena. Urte askotan herriko festak eta ihauteriak antolatzekeo ardura hartu izan dut, nolabait "tokatzen zitzaidan", herriaren pozgarri eta nolabait gazteon ardura ere, guk ez bagenituen antolatzen, nork antolatuko zituen festak? Eta guk antolatzean, gure modura ere egiten genituen, gure lagunak gonbidatuz (gero egoteko denbora asko ez genuen arren, zeregin nahikoa genuelako...).

Baina nire proiektu komun sendo eta sakonekoa Gabari gaztetxea izan zen, zalantzarik gabe. Asanblada bidez antolatzen ginen egunero, erai-kina ongi egotearen ardura genuen eta bertan egiten ziren ekintzak antolatzekeo eta aurrera eramatekeo. Kale komunikazioarena, herriarekin harremanak, barrak, ekonomia, Kubarri materiala bidaltzekeo proiektua... Ume koxkor batzuk ginen eta guretzako inongo diru irabazirik gabe (kontzertuetako sarrerak ere ordaindu egiten genituen, hori iza-



Arg: J.A. Garaikoetxea.

ten zelako taldeak eramaten zuena), esfortzu handia eta ordu pila pasa genituen. 10 urte inguru ibiliko ginen gaztetxearen bueltan, bukaera tristea izan zuen, herriko gazteek beraiek txikituta.

Zenbat ordu ere batukadetan, musikaren eta kale animazioaren maitasunagatik entseatzan eta festetan jotzen, afarien truk. Azken aldian kontakt inprobisazio elkartearen, orduak eta orduak sartzen dantza egiteko aukera gehiago izateko. Eta Iruñean, Jazar proiektuko bazkide, Jaso ikastola zaharra kudeatzen dugun artista kolektibo bat gara, gure kabuz, gure modura, gure gain... Orain bi aste egindako jardunaldi nagusian (non bazkideen %25 egon ginen), zeharka edo zuzenean aterratzen zen gai nagusia hau zen: Benetan kolektibo bat al gara? Jendeak ba al du kolektiboaren kontzientzia, eta batez ere inplikazioa?

Kontaezinak dira proiektu komunetan parte hartzearen onurak. Komunean lan egiteak helburu handiak lortzekeo aukera ematen du, ametsak gauzatzeko eta batez ere ametsak gauzaten ikasteko. Lanean ikasteko leku ederrak dira. Nolabait talde bakoitza bada bere buruaren nagusi eta kudeatzaile, eta hori oso aberatsa da. Gai asko lantzekeo ia modu bakarra da, elkartu eta norberak garatzea. Espazioei dago-kienez, komunean da espazio fisiko batzuk aurrera atera ahal izatekeo modu bakarra. Proiektu komunetan lan egin duen jendeak, gaitasuna du gauza asko aurrera ateratzeko.

Baina noski, zailtasunak ere badaude. Garrantzitsuenetako bat da, jende guztiaren inplikazioa ez dela berdina izaten eta tira-birak sortzen direla, ordu asko eskatzen dutela proiektuek eta gero "haizeak" eramaten dituela. Bizi kalitateari dago-kionez, lan ordu pila dira gizarte segurantzarik gabe, soldatarik gabe... eta askotan oniritzirik gabe...

Gizarteko joera gero eta norbanakoari begirakoagoa dela dirudien honetan, nire indarrak nola bideratu begiratzan nabilen honetan, krisiak krisi, bada zerbait esaten didana komunitarioaren indarrak ezin duela berdindu banakakoa. Zer da nire banakakoa eta zer komunitario behar dudana... Jarrai dezagun mugak topatzen eta bizi ematen elkarlanean. Besarkada estu bat eta aurrera!



Zabal

# Miraria ala kasualitatea?

*Historian, gertakizun asko izan ohi dira isilean pasatzen direnak, baita pertsonak ere, zarata askorik egin gabe bizi eta joaten direnak. Beteluko historian bada askok ia ahazturik duten eta beste askorentzat guztiz ezezaguna den gertaera bat, 1909an gertatutakoa. Gaur egun istorio sinesgaitz edo kurioso bat besterik ez izan arren, bere garaian berebiziko garrantzia eta oihartzuna izan zuena.*



Brigida bigarren aldiz komentuan sartu aurretik.  
Arg: Dolores Goikoetxeak utzitakoa.

Brigida Zubillaga Jauregi Errazkinen jaio zen 1897an. Bedaiotik etorriak ziren gurasoak, Feliciano Zubillaga Zubeldia eta Dolores Jauregi Zabala. 1889an Bedaion ezkondu eta Errazkingo Eraso Txikira etorri ziren bizitzera. Bertan izan zituzten euren zortzi seme-alabak, nahiz eta horietatik bi, jai eta hilabete gutxira hil ziren.

1909. urteko maiatzean, hamabi urte zituela, bizkarraren ezker aldean mina sentitzen hasi zen eta denbora gutxian gorputzaren enborra mugitu ezinik gelditu zen. Don Juan Bautista Nazabal Beteluko medikua zen. Ordurako familia Beteluko *Ipiarre* baserriera etorria zen bizitzera eta hainbat alditan medikuarenean izan ondoren eta zenbait tratamendurekin probatu eta gero, *Pott* gaixotasuna zuela ondoriotatu zuen, bizkarrezurrari eragiten dion tuberkulosiak, ornoarteko artikulazioei eraso egiten diena.

Denbora gutxian Brigidaren osasuna izugarri okertu zen, mina geroz eta jasangaitzagoa zen eta uztailean Beteluko bainuetxeko medikuarengana eramanean zuten. Don Wenceslao Vigil doktoreak artatu eta gero, *Pott* gaixotasuna zuela birbaieztatu zuen eta gainera bizkarrezurrean tumorazio bat zuela ohartu zen, oinez ibili eta zutik mantentzea galarazten ziona. Bainuetxeko doktoreak beste tratamendu bat jarri zion, baina okerrera baino ez zuen egin. Bi hilabete beranduago, irailaren 16an Brigidaren aita, gauez, dokto-rearengana joan zen gaixotasunaren ziurtagiria eskatzera. Antza, herriko



Feliciano Zubillaga eta Dolores Jauregi bere sei seme-alabekin: Vicenta (18 urte), Santos (14 urte), Brigida (12 urte) Sebastiana (8 urte), Pedro (3 urte) eta Jose Mari (urte eta erdi). Beteluko Ipiarrea baserriaren aurrean ateratako argazkia.  
Arg: Dolores Goikoetxeak utzitakoa.



emakume batzuek gomendatuta, neskatoa Lourdesera erromerian eramatea erabaki zuten. Eta hurrengo egunean ziren joatekoak.

Ama, alaba eta herriko emakume bat, Iruñean beste hainbat erromersekin elkartu eta Lourdesera abiatu ziren. Irailaren 19an, kobazuloko putzuraino hurbildu eta hainbat eta hainbat gaixok egiten zuten moduan bertan sartu zen. Momentuan bertan hilabete guzti horietan izandako min etengabea desagertu zitzaiola oharatu zen eta berehala amari esan zion.

Claudio Armendarizek, *La Avalanche* aldizkarian 1909ko urrian kalera tutako erreportaje berezian kontatzen duenaren arabera, bizkarrezurrean ordura arte agerian zituen konkorrak uretatik ateratakoan desagertu egin ziren.

Berehala, Lourdesko medikuen gabinetean atzerriko hainbat medikuk artatu ondoren, sendatuta zegoela baieztatu zuten. Miraria izan zela. Gertakizun horren akta idatzi eta horren berri eman zieten Iruñeko Artzapezpikuei, San Lorenzo elizako Marcelo Celayeta apaizari, Foru Diputazioko lehendakaria zen Manuel Albisturri eta *Diario de Navarra* egunkariko zuzendaria zen Mario Ozkoidiri.

Hurrengo egunean, Iruñera gauze iritsi ziren, bertako San Lorenzo elizan meza entzun eta biharamunean hiriburuko hainbat medikuk artatu eta gero Betelura iritsi zen. Ordurako ordea, Brigidak herritik ateratakoan egindako promesa beteko zuenaren erabakia hartuta zeukan, bizi guzti-rako moja sartuko zen.

## “Gaixotu eta komentutik atera behar izan zuen”

*Dolores Goikoetxea Brigidaren anaietako baten erraina da. Santosen semeetako batekin ezkontutakoa, Lontxon Zubillagarekin. Berak ere maiz, bisitatu izan zuen Brigida Lekunberriko komentuan.*

### **Brigidaren gurasoak Bedaiotik etorriak ziren...**

**Dolores:** Bai, Gurbil haundikoa bat eta Gurbil txikikoa bestea. Garia garbitzera etortzen ziren Betelura. Ezkontutakoan Errazkingo Eraso Txikira etorri ziren. Koltxoiak bizkarrean zituztela etorri omen ziren Mailopeko bideren batetik, gaztainondoetatik barna. Hala kontatzen zuen attuna Santosek.

### **Sei seme-alaba zituzten...**

**Dolores:** Bai, Bixenta (Iñoneara ezkondu zena), Santos (Ipiarrera ezkontutakoa), Brigida, Sebastiana (Kabi Alaiera ezkondu zena), Pedro (Elizpuruan bizi izan zena) eta Joxe Mari (Tolosara joan zena).

### **Eta zuri zer kontatu zizun Santosek Brigidaren kasuz?**

**Dolores:** Aitak bizkarrean eraman zuela plazaraino eta alabak esan zionla: “Atte, beño oinetakoik bai noa! Eta sendatzen banaiz? Zer pasakoa?”. Eta

Aitak erantzun omen zion: “Zerbatte izanen da neskatoa!”. Aita, Feliciano, beti arrosarioa errezatzen ibiltzen omen zen. Soroan lanean egonda ere, ezkilak jotzen zutenean gelditu eta errezatzen hasten omen zen. Gure amak kontatzen zigun baserriaren atzeko barrutira ateratzen zutela gurpildun ahulkian eta oso neskato ona omen zen, ez omen zen behin ere kexatzen.

### **Gero moja sartu zen...**

**Dolores:** Bai, Lekunberriko komentuan sartu zen baina gero gaixotu egin zen eta handik atera eta pare bat urtez kanpoan egon zen. Oso gaztea zen eta han barruan gaizkitu egin zen. Medikuk esan zien, neskato hori gazteegia zela barruan egotea, kalean jolastean egon beharko lukeela. Hamazazpi urterekin sartu zen berriz eta hil arte. Kalean ez zen asko hitz egiten hortaz, gero gerra etorri zen eta kontu hori ahaztu egin zen.

## “Aitak berak jaitsi omen zuen baserritik plazaraino besotan”

Felicianok, bere ama Sebastianak kontatutakoak ekarri ditu gogora. Arg: Labrit.



*Feliciano Buldain beteluarra Brigidaren iloba da. Bere ama, Sebastiana, Brigidaren ahizpa zen eta ongi aski gogoratzen du etxean izebari gertatutakoaz entzun izan dituenak.*

**Garai hartan Lourdesera joateko ohiturarik bazen herrian?**

**Feliciano:** Ez. Ezin sendatu zebiltzan eta mirariren bat gertatuko zenaren esperantzarekin eraman zuten. Aitak esaten omen zion, bi behi saldu behar bazituzten ere, saiakera egin behar zutela. Aitak berak jaitsi omen zuen plazaraino, besotan eta amarekin eta amaren lagun batekin joan zen.

**Galduta ere ibili omen ziren han...**

**Feliciano:** Bai. Alaba ostatu batean utzita enkargu batzuk egitera joan omen ziren eta gero ostatua aurkitu ezinik ibili omen ziren. Egun guztia bere bila pasa omen zuten. Ostaturikoei neska atarira ateratzea bururatu zitzairen, eta horri esker elkartu ziren berriz. Eta gero uretara sartu eta berehala esan omen zuen: “Ama sendatu naiz!”. Nonbait berehala sentitu omen zuen berak. Betelura etortzerako, sendatu zenaren abisua eman zuten herrian eta izugarritzko festa izan omen zen. Jende asko etorri zen. Denak ezin sinistu, ikusi zuten moduan ikusita eta bat batean oinez?

**Eta etorri eta berehala moja sartu zen...**

**Feliciano:** Esaten dute joaterako sendatuz gero moja sartuko zenaren promesa egin zuela. Hamabost urterekin sartu zen Lekunberriko komentuan. Garai hartan, moja joateko dotea behar zen eta Donostiko emakume batek eman zion dotea. Guadalupe Amestoi izeneko emakume batek. Hark miraira izan zela entzun eta Bete-lura etorri zen eta promesa hori egin zuela entzun zuen.

**Orduan hemendik kanpo ere ezaguna egin zen kasua?**

**Feliciano:** Bai, bai. Emakume hura ez zen ezaguna, baina gero harremana mantendu genuen hil zen arte. Gurasoek dotea eman ahal izateko, ziur aski behiren bat saldu beharko zuten eta hark dotea ematearekin pozik.

**Eta zuen amak miraria izan zela zioen?**

**Feliciano:** Bai, bai. Hona iritsi zenean, froga asko egin zizkioten berriz eta hala deklaratu zuten.

## Isilean eramandako gertaera...

Brigidak bere bizitza osoan isilean eraman zuen kontua izan arren, Lekunberriko komentuan ere aski ezaguna dute historia hau. Lourdes Arroki, Maria Josefa Loidi eta Carmen Elcizekin izan gara. Gertatutakoa kontatzeko eskatzen zioten arren, berak ez omen zuen hitz egin nahi. Maria Josefa: “Mirari hura bere amak zuen fedeagatik gertatu zela esaten zuen”. Carmenek berarekin izandako elkarrizketa bat berreskuratu du. Hamabost urterekin sartu zen komentuan, baina denbora

gutxira agineko minez gaixotu egin zen, jateari utzi zion eta ahulduta zegoenez, etxera bidali zuten. Hamabazpi urterekin bueltatu zen. Pertsona isila baina atsegina zela gogoratzen dute. Urte askoan komentuko Ama Nagusia izan zen. Lourdesek oraindik buruan ditu elkaribizitzari buruz ematen zizkien hitzaldiak. 1990. urteko martxoan hil zen 93 urte zituela. Diotenez, Nafarroako Artzapezpikuak onartutako lehenengo miraria izan omen zen.

## Txarrenari onena



●● Pello Azpirotz

Kaixo Andrea zer moduz? Ikasturte bukaera iristear dago eta nik uste ikasle garen gehienok pozik gaudela. Berriro ere, albiste izan dira duela gutxi Israelek egindako sarraskiak: dozenaka hildako (tartean umeak), milaka zauritu, kazetariei erasoak, laguntzen ari diren mediku eta laguntzaileak tirokatu, Gaza/Zisjordania bezalako kartzela erraldoiak mantenduz... Israelgo estatu sionista-geozidak 70 urte daramatza palestinarren lurra era odoltsuan okupatzen, nahi duena egiten du inongo ondoriorik gabe. Eta noski "biktimak" eta onak beraiek dira, babestu besterik ez dira egiten palestinarren erasoan aurrean (ironia). Harriak tankeen aurka!

Venezuelaren, Ipar Korearen, Iranen... inguruan askotan entzuten ditugu herrialde ezberdinetako lehendakariak edota mundu mailako organismoak gaitzesten, zeozer esanguratsua gertatzen denean. Israel egiten ari den sarraskiaren inguruan berriz, ez dugu ez Trumpen, ez Macronen, ez ONUren... kondena gogorrik ikusten, ez da ezer pasatzen beraien ustetan. ONUrengan sinestea geroz eta zailago egiten zait horrelako kasuak ikusita. Non daude palestinarren giza eskubideak? Non dago denon eskubideak errespetatzen eta bermatzen dituen Europa? Israelek Estatu Batuen babes osoa dauka (beti babesten ditu Israelgo armadaren sarraskiak guztiz legitimatuz) eta gainerako herrialdeek ez dute busti nahi edo antzeko ikuspegia dute eta konplizeak dira. Izugarritzko ezintasuna sentitzen dut egoera honen aurrean.

Oso jakina da Palestinan gertatzen ari dena, eta hala ere nola da posible Eurovisionen, UEFA-n, Euroleaguen... parte hartzen uztea? Nik behintzat argi daukat boikota egin behar zaiela. Israelek boikota ekiditeko aldatu egin du barra kodeetan bere produktuek duten zenbakia 729-tik 871-ra (hasieran dauden lehenengo hiru zifrak). Zein da zure iritzia Andrea? Udara hasiera zoriontsua opa dizuet denoi.



●● Andrea Etxarri

Aupa Pello! Garai polita kurtso amaiera bai, ume eta gaztetxoak dagoeneko hasi dira nekea azaleratzen eta "parranda" edo jolaserako gogoia dutela sumatzen da. Hala ere, gure lana ongi egin ezker, irailan bueltatzeko gogoia ere izan beharko lukete, guk bezalaxe.

Diozunaren harira, ados nago esaten duzunarekin, aguanta ezina da horrelako gauzak gertatzen ari diren bitartean, hauek ekiditeko edo giza eskubideak babesteko mundu mailako erantzun indartsuago bat ez egotea. Bai, esaten duzun bezala, boterean dauden horiek Israeli babesa eman edo "bi aldeei kontrola eta moderazioa" eskatu eta ohera dijoaz lasai aski, berdinaren arteko guda bat izango balitz bezala, desproporzioari kasurik egin gabe, herrialde zapaldu bat dagoela onartu gabe.

Alde batetik, gizarte bezala asko dugu ikasteko. Askotan errazago azaleratzen dugu gorrotoa, guda gogoia eta botere nahia, enpatia, solidaritatea edo errespetua baino. Judutarrek historian zehar sufritutako guztiaz ikasi beharrean beraiek ere beste herrialde bat zapaltzen ari dira, gupidarik gabe, duten botereaz baliatuz. Beraiek ere gauzak beste modu batez egiteko aukera zuten.

Beste batetik, triste da gainontzeko herrialdeek aurrera eramaten ari diren sistema bat defendatzearen (Israel ere parte dena), dituzten aliantzak eta interdependentziak direla medio, giza eskubideak eta oinarrizko printzipioak alde batera uztea. Hori lehen posizioan egon beharko litzateke, beste edozerren aurretik.

Bukatzeko, primeran iruditzen zait modu partikularrean boikota egiten saiatzea, hala ere, ez genieke egin beharko hori baimentzen ari diren guztiei ere? Berezik zaila iruditzen zait. Kontzientziazio potente bat behar da, bide luzea dugu baina irailan berriz lanean gara.



LARRAUN

## Kultur ekitaldiz betetako hilabetea izan da maiatza

Maiatza Kulturalaren baitan hilabete mugitua izan da Larraunen. Beste askoren artean, hainbat hitzaldi eskaini ziren, heriotza duinari buruz aritu ziren Manuel Eziolaza eta Mikel Saralegi Lekunberrin eta Gorritiko gazteluari buruzko hitzaldia eskaini zuen Gorritin Beñi Agirrek. Bestetik, Bide Berdeen Eguna ospatu zen maiatzaren 6an. Lekunberritik Leitzarainoko bidea oinez nahiz bizikletan egin zuten familia askok. Musika eta antzerkia ere ezin ziren falta. Ibarberriko DBH-ko ikasleek antzerkia eskaini zuten eskolan eta Txanbela otxotearen kontzertuaz gozatzeko aukera ere izan zen.



LARRAUN

## Ekainaren 16an eta 17an ospatuko da Larraungo Eguna

Uitzin eta Lekunberrin ospatuko dira aurten Larraungo Eguneko ekitaldiak. Ekainaren 16an Uitzin ospatuko dute larraundarrek euren ibarraren eguna. Eta igandean berriz, Lekunberrin egingo da aurten herri bazkaria, bertsolariekin eta guzti. Aurten berritasun gisa, bazkariaren aurretik, antolakuntzak LipDub bat grabatzeko proposamena ere egingen du. Egitarau osoa Agendan ikusgai (31.orr.).

INTZA

## Hemen da Intzako Antzerki Jaialdia!

### Ekainak 16, larunbata.

**17:00** Umeentzako ikuskizuna eta txokolatada.

**19:00** Dantza inkrusiboa *Canela Fina* taldearen eskutik.

**21:00** Jazz kontzertua *Peppermint Quartet* talde donostiarrarekin. Gauean bokatak eskainiko dira.

### Ekainak 17, igandea.

**12:00** Ixabel kontu kontari.

**13:00** Clown ikuskizuna: *Teaser al final de la playa*. Taloak eskainiko dira plazan.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41      Lekunberri  
Fax 948 60 45 20      urzubi@hotmail.com

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com      Atallu - Araitz

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## MUGIRO ETA BETELU

## Mugiroko eta Beteluko San Pedro ospatuko dituzte ekaineko azken asteburuan

Heldu da opor garaia eta horrekin batera, baita herrietako jaien maratoia ere. Mugirokoak eta Betelukoak izan ohi dira goiztiarrenak. Ekainaren 28an ospatuko den Umeen Egunarekin emanen diete hasiera beteluek eta uztailean 1era bitarte haur nahiz helduentzako egitarau bete-betea izanen dute. Mugiroarrek berriz, ekainaren 29an, patroiarren egunarekin hasiko dituzte festak eta asteburu osoan zehar errondak, musika, umeentzako jokoak eta pilota partidak izanen dituzte, besteak beste. Aurten, Beteluko egitarauak Naroa Floresek egindako diseinua eramango du.



## MUGIROKO PESTAK 2018

**Ekainak 29, ostirala (San Pedro eguna)**

**11:00** Meza Nagusia.  
**12:00** Hamaiketako ostatuan.  
**20:00** Suziria.  
**21:30** Herri-afaria. Gero Trikidantz.

**Ekainak 30, larunbata (Umeen eguna)**

**12:00** Erronda.  
**17:00** Umeentzako jokoak.  
**18:00** Mus txapelketa.  
**21:00** Barrikotea.  
**00:00** Trikidantz.

**Uztailak 1, igandea**

**11:00** Meza.  
**12:00** Erronda herrian barna.  
**17:00** Pilota partidak.  
**19:00** Txokolatada.

## BETELUKO SAN PEDRO JAIK 2018

**Ekainak 28, osteguna (Umeen eguna)**

**11:00** Gosari herrikoia.  
**12:00** Txupinazoa, eta haur-jolasak.  
**17:00** Puzgarriak.  
**18:30** Frontenis txapelketako finala.  
**21:00** Herri afaria eta sorpresa. Afaldu ondoren, FUN & GO! musika taldea.

**Ekainak 29, ostirala (San Pedro eguna)**

**7:00** Auroroak.  
**8:00** Diana.  
**12:30** Meza nagusia.  
**13:15** Herriko jaioberriei ongi-etorria.  
**13:30** Pilota goxua txapelketako finala.  
**17:00** Mus, Pin-pon eta dardo txapelketa. Bitartean, ARALAR Musika Eskolako ikasleen kontzertua.  
**18:30** Bailarako dantzarien ikuskizuna.

**19:30** Tortila patata txapelketa. Gazta zaharra eta ardo dastaketa.  
**20:00** THE TRIKITEENS musika taldea.  
**20:00** Euskal Preso eta Iheslarien aldeko kontzentrazioa.  
**22:00** Zezen suzkoa.  
**00:30** THE TRIKITEENS musika taldearen bigarren saioa.  
**02:30** DJ ISMA CONQUIS.

**Ekainak 30, larunbata (Gazte eguna)**

**12:00** Bailarako haurren futbol partiduak.  
**14:00** Paella txapelketa eta, ondoren, bazkari herrikoia bertsoariiek alaiturik: Oihana Iguaran eta Iker Zubeldia.  
**17:00** Elektrotxufla Elektrotxaranga herrian zehar.  
**20:00** GABEZIN musika taldea.  
**22:00** Zezen suzkoa.  
**00:30** GABEZIN musika taldearen bigarren saioa  
**02:30** JAIKIDE DISKOFESTA

**Uztailak 1, igandea (Helduen eguna)**

**12:30** Bailarako umeen pilota partiduak.  
**18:00** JOSELU ANAIK musika taldea.  
 Bitartean, sagardo eta pintxo dastaketa.  
**20:00** Sari banaketa.  
**21:00** Herri afaria eta sorpresa.  
**00:00** Traka finala.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
 Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
 14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
 ELKANO  
 S.L.**

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

# Egingo al dugu euskaraz?

*Oraindik ez dakizu Mailopeko azkeneko aleko kontrazalean kaleratutako irudiak zer esan nahi duen? Hamaika lagun elkartu genituen, hamaika izango baitira datorren azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, Euskaraldia egitasmoaren baitan, euskaraz arituko garen egun kopurua. Euskal hiztunekin, euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren ulertzen duten horiekin euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartuko dute herritarrek. Irailetik aurrera irekiko da izen-emateko epea eta hainbat jarduera antolatuko dituzte eskualdean sortu diren bi batzordeek.*

## Zer da Euskaraldia?

Topaguneak martxan jarri duen egitasmoa da, Euskarak 365 egun dinamikaren baitan antolatutakoa. Aurtengoan ekimen berezi bat proposatu digute, 2019an jarraipena izango duena, hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz aritzea. Proposamena gure eskualdeko bi euskara batzordeetan landu ondoren aurrera egiteko erabakia hartu genuen eta bi lan talde sortu dira.

## Zein da egitasmo horren helburua?

Gure harremanetan euskararen erabilera ohiturak eta ditugun inertziak edo jende jakinarekin jada barneratuegi ditugun jarrerak aldatzea. Jende asko dugu inguruan euskaraz hitz egiteko gai ez den arren, euskara ulertzen duena eta beraiekin ere euskara erabili dezakegula ikustarazi behar dugu.

## Identifikagarriak izango diren bi rol proposatzen dituzue...

Bai. Hamaika egun horietan egitasmoan parte hartuko duten lagunek txapa identifikagarri bat eraman-go dute. Alde batetik "Ahobiziak" egongo dira, euskaraz hitz egiteko arazorik ez dutenak eta gainerako partaide guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartuko dutenak. Eta bestetik, "Belarriprestak" egongo dira, euskaraz egiten dietenean ulertzeko arazorik ez dutenak, baina hitz egiteko gai ez direnak edo zailtasunak dituztenak. Euskaraz egin diezaietela eskatuko dute, nahiz eta beraiek gatzelaniaz erantzun.

## Baina hamaika egun horien aurretik hainbat ekintza antolatuko dira, ezta?

Bai. Ahalik eta herritar gehienek parte hartzea nahi dugu, jendeak konpromiso hori hartzea. Egitasmoa

*"Hitz egiteko gai ez izan arren, euskara ulertzen dutenekin ere erabili dezakegula ikustarazi behar dugu"*

azaroan izango den arren, irailetik aurrera, jendea bide horretan kokatzeko, sentsibilizatzeko eta motibatze hainbat jarduera antolatuko dira. Talde ezberdinetara jo nahi dugu, erakundeetara, elkarteetara, zerbitzu ezberdinetara, egitasmoa azaldu eta parte-hartzea bultzatzeko. Hori guztia aurrera eramateko bi batzorde sortu dira eskualdean. Hemendik irailera bitarte, egitasmoa ezagutaraztea eta zabaltzea izango da gure helburua. Horretarako, herritarrekin sortutako bideo bat prestatzen gabilta, Mailopeko azkeneko alean ere moskeo kanpaina txiki bat egin genuen, udal ordezkarietara egitasmoa aurkeztu diegu...

## Gure eskualdean Euskaraldia egitaraztea erraza izango dela uste duzue?

Euskara batzordeetan gaia lehenengo landu genuenean, egitasmoan izen emateko zalantzak izan genituen. Irailetik aurrera etorriko den guztia antolatzeke jendea behar da eta hasieran ezkorrak ginen, baina bideragarria dela uste dugu. Eta jendeak parte hartzea espero dugu. 40 urte inguruko pertsona asko daude euskaraz ulertzeko gai izan arren, hitz egiten ikasten ari direnak, zaharkiturik dutenak edo pauso hori ematera ausartzen ez direnak. Askitzeko eta bidea errazteko aitzakia bat izan liteke. Eta euskal hiztunak garenok ere "Belarriprest" horiekiko jarrera aldatu eta kontzienteago izateko. Helburua ariketa horrekin, ondoren gogoeta egin eta jokabide horri eustea da, hamaika egun horien ondoren euskara erabiltzen jarraitzea.

**Euskal Herriko hainbat eta hainbat hiri eta herritan aldi berean egingo den egitasmoa izanik, gure eskualdetik kanpo ere parte hartzen ari diren ezezagunekin ere topatuko gara...**

Bai, adibidez Iruñera joanez gero ere zure txapa eramango duzunez, eta bertakoek ere parte hartzen ariko direnez, euren rolak identifikatu eta beraiekin ere euskaraz ausardia handiagoarekin egiteko aukera polita izango da. Batez ere hiriburuetara joaten garenean, hasieratik gaztelaniara jotzeko joera handia daukagu, eta sorpresa handiak har ditzakegu, aurrean dugun hori ere euskaraz egiteko gai dela ohartzen garenean.

**Noiz irekiko da izen-emateko epea?**

Irailetik aurrera. Hamasei urtetik gorako herritarrek parte hartu ahaliko dute. Irailean jakinaraziko dugu, izen-ematea nola egingo den eta txapak eskuratzeko bideak zeintzuk izango diren. Bitartean herritarrak antolatuko ditugun jardueretan parte hartzera animatzen ditugu eta gurekin batera lan egin eta egitasmoa zabalten laguntzeko gonbita luzatzen diegu.





## Araxes hirugarren Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketan

Maiatzean jokaturako beste bi saioekin erabakita gelditu zen 2018ko Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketako sailkapena. Iruritan jokatu zuten azken norgehiagokoa eta 20 urtez azpikoen mailan Araxes taldea 3. postuan sailkatu zen. Unai Ijurko entrenatzaileak azaldutakoaren arabera, Kadeteetan, Araxes A taldeak ez zuen tiraldirik irabazi, baina txukun moldatu ziren eta Araxes B taldeak berriz finalaren atetan gelditu zen 0,5 punturengatik. Zorionak!

## Igeriketa ikastaroa 3 eta 12 urteko haurrentzako

Haurrei zuzendutako hiru maila ezberdinetako igeriketa ikastaroak eskainiko dira hilabete honetan Plazaola kirol-guneko igerilekuan. Ekainaren 4tik 22ra bitarte familiarizazio ikastaroa izanen da 3 eta 4 urte bitartekoentzat, hastapen ikastaroa 5 eta 6 urte bitartekoentzat eta hobekuntza ikastaroa 7 eta 12 urte bitartekoentzat.

Informazio gehiago: [kirolmankomunitatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com) edo 948 507 377.

## Beteluko bi ordezkari Lloretoko Munduko Futbol Txapelketan

Gael Gipuzkoako Herri Txikietako Areto Futbol elkarteko taldekideek Munduko Txapelketa jokatu zuten joan den hilean Lloret de Marren. Txapelketa, Munduko Areto Futbol Federazioak, antolatzen du Europako Batzordearen laguntzarekin. Egungo araudiak Euskal Herriari bere talde ofiziala izateko aukera eskaintzen du. Neska-mutuez osaturiko areto futboleko bi talde eta mikrofutsaleko hiru talde antolatu zituen Gael elkarteak txapelketan Euskal Herria ordezkatzeko. Tartean Beteluko bi ordezkari izan ziren, Ekaitz Eskamendi eta Julen Sotil. Futboleko talde batek 3. postua eskuratzea lortu zuen eta mikrofutsalean ere taldeetako bat hirugarren sailkatu zen eta beste talde bat txapeldunordea izan zen. Zorionak!



**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
akindlegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.

Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)





## TAK Oria klubeko neskak Euskadiko txapeldun

Beste denboraldi eder bat egitea lortu du Gaintzako Laiene Izagirrek. TAK Orian, Tolosako Arraun Elkartean, kadete mailako neskekin aritu da aurten patroi lanetan. Gipuzkoako Ligan bigarren gelditu ziren Oriorekin lehia ibili eta gero. Gipuzkoako Txapelketan berriz, segundo gutxiren aldearekin bigarren sailkatu ziren, baina Euskadiko Txapelketa irabaztea lortu zuten Legution, Kaiku eta Orioko neskekin nor baino nor aritu ostean. Espainiako Txapelketan parte hartu bazuten ere, bertan ez zuten lehenengo postuetan sailkatzea lortu. Aurten Tolosako Elkarteak trainera ateratzea lortu du lehendabiziko aldiz eta uda honetan Laiene patroi arituko da bertan ere. Zorionak!

## Haurrentzako irristaketa ikastaroa

Ekainaren 5etik 28ra bitarte Plazaola kirol-gunean irristaketa ikastaroa eskainiko da bost urtetik gorako haurrentzat. Saioak asteartetan eta ostegunetan izanen dira 18:00etatik 19:00etara.

Bazkideentzako 25 euroko prezioa izango du ikastaroak eta bazkide ez direnentzako 33,75 euro.

Patinik ez dutenek Plazaola kirol-gunean galdetu dezatela.

Informazio gehiago eta izen ematea: [kirolmankomunitatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com) edo 948 507 377.

## Beti Kozkorrek hirugarren mailan jarraituko du

Beti Kozkor Klubeko goreneko taldea hirugarren mailan aritu da aurtengo denboraldian eta estuago ibiliko zirela uste bazuten ere hamargarren postua eskuratzea lortu dute. Beraz, datorren denboraldian hirugarren mailan jarraituko dute. Uztailaren 23an hasiko da aurre denboraldia eta aurten lortutako esperientziarekin hobetzen joateko itxaropenarekin daude Beti Kozkorreko jokalariaik. Gainera zenbait fitxaketa berri ere egingo direla aurreratu digute. Beñat Barberena lekunberriarra esaterako, etxeko taldera bueltatuko da.



**FISIOTERAPIA**

Andoni Ayerdi Olascoaga

609 536 002 · 948 604 789

Iturriak kalea 7, 31870 Lekunberri  
andoniaofisioterapia@gmail.com

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**



## Hipertentsio arteriala

### ZER DA?

Tentsio arteriala, odolak arterietatik zirkulatzean egiten duen indarra da. Balio normaletatik gora badago, modu jarraituan, hipertentsio arteriala dagoela esaten dugu. Bihotzak lan gehiago egin beharra dauka, denok ulertu dezagun. Hipertentsio hau oso altua ez bada, ez du sintomarik ematen, beraz gaixotasun isil bat dela esan dezakegu. Estatistiken arabera 40-65 urteko %20k jasaten du eta 65 urtetik gorako %60k. Zifra altuak dira. Hala ere, gaur egun geroz eta jende gehiagok du arazo hau eta geroz eta gazteago gainera. Pertsona askok ez dakite tentsio arterial altua dutela.

Hau horrela izanda, gaurkoan elikadura nolako izan behar duen azalduko dut eta zer fitoterapia (berrak) erabil dezakegun balio normalak lortzeko edota mantentzeko. Bai elikadurak, baita kirolak, eta fitoterapiak ere garrantzi handia edukiko dute gaixotasun honen aurrean.

### Harremanetarako:

608 32 19 05

neresotil@gmail.com

San Anton kalea, 12 (Iruñea),

La ventana natural belardendan.

### AHOLKUAK:

- Lehenik eta behin obesitatea edo pisu gehiegi badago, jaitsi egin behar da.
- Edari alkoholikoak alde batera utzi.
- Erretzeari utzi.
- Heste beteak, fianbreak... alde batera utzi.
- Arrai gehiago jan (zuria eta urdina), astean 4 egunetan gutxienez.
- Oliba olio birgina erabili sukaldean.
- Sukaldatzeko garaian, plantxan, egosita, labean... hobe.
- Kontuz kafearekin (ez dago dena kendu beharrik).
- Kaltzioa oso garrantzitsua da (agian suplementazioa hartu beharra daukazu).
- Gatza gutxi erabili, eta erabiltzen dena findu gabea izan dadila.
- Kontuz gaztarekin, gantz eta gatz asko baitu.
- Barazkiak eta frutak eguneroko elikaduran egon behar dute derrigorrez.
- Kontuz kontserbekin.
- Gozoak alde batera utzi, poltsetan datozen patata frijituak, goxokiak...
- Fruitu lehor naturalak jan.
- Kontuz ogiarekin. Ogi asko jaten baduzu hobe gatzik ez duena.
- Ura edan.
- Janari ultra-prozesatuak alde batera utzi.
- Kirola egin, egunero. Bai kardiobaskularra baita indarra ere. Azken hau oso garrantzitsua da.

### HONAKO INFUSIOEK LAGUN ZAITZAKETE:

- Elorri zuria.
- Oliboa.
- Baratzuri beltza.
- Azari buztana.
- Urkia.
- Izpilukua.
- Estebia.

Adi egon, zure osasuna garrantzitsua da eta batzuetan ez diogu arretarik jarzen, baina gaixotasun isilak egon daitezke. Hurrengoan gehiago!!!

# Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Beteluko Areto Futbol Taldeak Altsasun jokaturako txapelketa bateko finalean ateratakoa da.

**Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran:** Julen Elordi, Axier Elizalde, Unai Otermin, Iñaki Elizalde, Gari Huizi eta Xabi Oreja.

**Beheko ilaran:** Mikel Alvarez, Jon Ariztia, Imanol Mikeo eta Joseba Oreja.

nor da nor?

# Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?  
Non ateratakoa da?  
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.



**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007

[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli.

Tfnoa: 609 130 555

# Beteluko Udal Hirigintza Plana garatzeko Aurretiko Ituna onartu da

Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, Beteluko Udal Hirigintza Plana garatzeko hirigintza araudiarekin eta udalerriko lurralde antolamenduarekin lotutako oinarritzko irizpideak biltzen dituen Aurretiko Ituna onartu du.

Bertan zehazten dira besteak beste, ingurumenarekin eta komunikazio sareekin zerikusia duten irizpideak, zonifikazio eremuen definitzea, hazkunde gaitasunaren aurreikuspena eta libre utziko diren guneko publikoak.

Betelun, herrigune bakarra aurreikusten da, beraz, hazkuntza emanez gero, nukleo horren inguruan baino ez da izango. Wisco eta Beteluko Urak lantokiek osatzen duten eremua, jarduera ekonomikoetarako gune gisa kontsolidatzen da udalerrian ez ezik, eskualdean duen eraginagatik, eta handitzeko aukera zehazten da. Gainera, Iriaundi parajearen eremu ekonomiko berri bat eraikitzeak aukera ere aurreikusten da. Bestetik, Argaiztiondoeta parajearen kokaturik dagoen espazio geografikoa erreserbatzen da, etorkizunean bainuetxearen proiektua edo bestelako jarduera turistikoa garatzeko.



*“Beteluko Udalak, urtea amaitu aurretik Hirigintza Planaren behin-behineko onarpena adostea aurreikusten du”*

Udalerriak hazteko izan dezakeen gaitasuna kontuan hartuz, gehienez 90 etxebizitza berri eraiki ahaliko dira. Baina kopuru hori txikiagoa izan daiteke Udal Hirigintza Planean, zonifikazio irizpideak direla eta. Udal Planean zehaztuko dira ere Araxes Ikastetxe Publikoa handitzeko aukera emango duten lurrak.

Aurretiko Itun honen onarpenak, dagoeneko garatze bidean dagoen Udal Hirigintza Planerako oinarriak finkatu ditu. Maria Urmeneta eta Patxi Txokarro udal arkitektoak ari dira planaren erredakzioaz arduratzen. Beteluko Udalak, urtea amaitu aurretik Hirigintza Planaren behin-behineko onarpena adostea aurreikusten du. Horren ondotik, herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izanen dute.

## BETELUKO UDALAK POSITIBOKI BALORATU DITU EGINDAKO AZKEN AZPIEGITURA LANAK

Krisia dela eta Nafarroako Gobernuko 2009-2012 Tokiko Inbertsioen Plana luze joan den arren, Beteluko Udalak dagoeneko amaitu ditu diru-laguntza horrekin lagundutako lanak.

Hilerriko eraikinaren teilatua berritu eta barruan bi pasillo egiteaz gain, irisgarritasuna hobetu duen parkinga ere eraiki da. Mikel Rekalde: *“Aparkalekua, garai bateko hilerri zibila zegoen lekuan eraiki da. Egindako ikerketen arabera, hilerri zibilean ez da inoiz inor lurperatu eta aparkalekura ibilgailuz iristea erraztuko duelakoan gaude”.*

Bestetik, ur biltegiara joateko bide berria eraiki da. Hasiara batean, bide zaharrean izandako luiziek hautsitako bide hura berritzeko proiektua aurkeztu zen arren, ondotik izandako beste luiziek bide alternatibo bat eraikitzeak erabakia hartzera bultzatu zuten Udala. *“Esan dezakegu Tokiko Inbertsioen Planean krisiak eragindako eternaldi hura onuragarria izan dela kasu honetan, bide zaharra berritu izan bagenu, denborarekin luizi gehiago izango genituzkeelako. Gainera,*





*ur biltegitik herrira datorren hodian balbula bat jarri da, ur presioak sor ditzakeen matxurak saihesteko”.*

Eta Antigua kalean egindako lanak ere amaiturik daude dagoeneko. Araxes ikastetxearen aurrean dagoen kalea nahiko hondaturik zegoen eta erabilera handikoa dela kontuan hartuta, ur-sarearen hornidura berritu eta Indianoetxetik Wisco lantegirainoko bidea zolatu da. *“Lan horiek aprobeztatuz, espaloien ertzen altuera jaitsi egin da. Oztopo arkitektonikoak genituen espaloietan eta orain, metro eta erdiko zabalera eman zaie. Ikastetxe-ko sarreran zegoen burdinezko atea ere kendu egin da. Pisutsuegia zen mugitzeko eta espazio gehiegi okupatzen zuen. Sarrera politago gelditu dela uste dugu. Eta Errekaldean, pareta baten erortzea izan genuen orain dela urtebete. Diru-laguntza jasotzeko proiektua bideratzea lortu genuen Nafarroako Gobernuarekin, eta Ur Konfederazioaren onarpena ere eskuratu genuen. Pareta berritu eta baranda bat jarri da”.*

Beteluko Udalak, positiboki baloratu ditu obra hauen guztien egikaritzeak. Jose Miguel Rodriguez Ezpeleta arkitektoa arduratu da proiektuak

egin eta obrak zuzentzeaz. Eraikuntza lanak berriz, Apezetxea Anaiak S.L. enpresak egin ditu. *“Pozik gaude Arkitektoak egindako proiektuarekin eta egin zaion jarraipenarekin, baita Apezetxea Anaiak enpresaren lanarekin ere, obrak ongi egiteaz gainera, herritarrei ahalik eta molestia gutxien sortzeko ahalegin handia egin dutelakoan gaude”.* Guztira, 572.000 euro inbertitu dira berritze lan hauetan.



**Beteluko Udalak Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak onartutako Aurretiko Ituna jaso berri du. Udala garatzen ari den Hirigintza Planaren oinarritzko irizpideak biltzen dira bertan. Bestetik, dagoeneko amaitu dira herrian egindako azken azpiegitura lanak.**

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com

**NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA  
EUSKARA IKASLEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK: OINARRIAK**

Xedea. Oinarri hauen xedea Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei diru laguntza ematea da.

Diru laguntzaren gaiak. Diruz lagunduko dira 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikula (estentsiboak, trinkoak, barnetegiak, informatika bi-dezkoak, eta oro har Balorazio Batzordeak onesten dituenak). Diru laguntzaren zenbatekoa gastuaren %50ekoa izanen da gehienez ere (ikasturtean zehar langabezia egondakoentzako %100ekoa). Kilometrajea, egoitza eta otordu gastuak ez dira diruz lagunduko.

Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea deialdia argitaratzen denetik 2018ko otsailaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko erregistroan edo dagokien herriko Udaletxe edo Euskara zerbitzuan:

- a) Eskabide ofiziala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.
- c) Erroldatze ziurtagiria.
- d) Euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria.
- e) Matrikularen ordainagiria.
- f) Langabeek Seguritate Sozialak emandako bizitza laborala izeneko agiria edo SEPEk egindako ziurtagiria, euskara ikasten ibili diren tartean langabezia egon direla adierazten duena, aurkeztu ahalko dute, Mankomunitateak, inguruabar horri begira, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkula dezan. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.
- g) Matrikula egiteko garaian langabezia daudenaren ziurtagiria (diru-laguntzak aurreratzea eskatzen duten ikasleentzat soilik).
- h) Eszedentzia egoera justifikatzen duen agiria, enpresaren eszedentzia egoeraren onespena...
- i) Erretirodun egoera justifikatzen duen agiria, Seguritate Sozialaren txostena edo beste.
- j) Azkeneko ekitaldiari dagokion errentaren aitortpena egin behar ez zutela egiaztatzen duen Ogasun Departamentuko ziurtagiria (eszedentzia egoeran egondakoentzat edo erretirodunentzat soilik).
- k) Kontu korrante zenbakia.

Eskaera aurkezteko: Larraunaldeko Euskara zerbitzuan ( Larraungo udala).

IRAGARKI TAULA

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

**German Lasarte**  
ARBEONDO  
**HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

## EKAINA

## 5-6 | LEITZA:

Eskualdeko artzainen artilea kudeatzeko proposamena aurkezteko bilera. Goizeko 11:30ean Leitzako udaletxeko batzar aretoan.

## 10 | EUSKAL HERRIA:

Gure Esku Dagoren Giza Katea!!

## 16 | ARRIBE:

Satorzuloren 5. urteurrena: mendi martxa, trikipoteoa, bertso-bazkaria, mus txapelketa eta DJ Satorzulo.

## 22 | ALLI:

17:00etan Alliko Akelar lokal-ikuiluan bateria kontzertua: Martillotxikiko perkusionistak.

## LARRAUNGO EGUNA 2018

## EKAINAREN 16AN UITZIN. (Eguraldi txarra eginez gero Aldatzen):

17:00 Tirikitrauki dantza taldea  
18:00 Pilota partiduak  
19:00 Zirika Zirkus: Egun on, sikiera!  
19:00 Mural margoketa  
20:00 Barrikotea eta trikitixa  
22:00 Gazte afaria  
24:00 Musika.

## EKAINAREN 17AN LEKUNBERRIN:

10:00 Txistulariak hainbat herritan  
12:00 Musika kontzertua elizan  
13:00 LipDub grabaketa  
14:00 Herri bazkaria bertsolariekin  
16:00 Puzgarriak  
16:30 Ikuskizuna  
17:00 Musika

## SANJOANAK 2018

## EKAINAK 22, OSTIRALA:

19:00etan herriko plazan, LEKUNBERRIKO I. NAFAR GARAGARDO FESTA, GARAGARDOA, SALTIXIXA BOKATAK, MUSIKA.

## EKAINAK 23, LARUNBATA:

21:00etan herriko plazan, Suteak, txistorra eta THE CRABTONES Kataluiniako musika taldea!

## EKAINAK 24, IGANDEA:

9:00 Goiz-soinua.  
12:00 Haurren pilota partidak  
14:00 Herri bazkaria eta bingoa (Entsalada, paella, postrea, kafea eta edaria. Txartelak udaletxean salgai 8 eurotan).  
14:00 Jubilatuen bazkaria Ayestaran hotelean eta ondoren musika.

AGENDA

## SALGAI

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Salgai enpakadora John Deere 330. Gutxi erabilia, egoera oso onean. Telefono zenbakia: 659 796 445

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

MERKATU TXIKIA

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA**  
- HARATEGIA -

**PATXI GALARZA**  
Astelehenerik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun 

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34





# Mailope Kantuz

ekainak 9  
Beteluko plazan 18:00etan

